

Enpresak burutzen duten jarduera motaren arabera hiru talde nagusitan sailkatzen dira: lehen sektoreko enpresak, bigarren sektorekoak eta hirugarrenekoak. Lehen sektoreko enpresak, baliabide naturalak ustiatzen dituzten enpresak dira. Bigarren sektorekoak, industri jarduer burutu produktu berriak sortzeko helburuarekin baliabide naturalak eraldatzen dituztenak, eta hirugarren sektorekoak industria ekintzarik burutzen ez dutenak eta edozein zerbitzu eskaintzen dutenak dira. Gure enpresa hirugarren sektoreko enpresa bat da.

Gure asmoa urte osoan zehar gure inskalazioak irekita mantentzea da. Goiz eta arratsaldean eta hitzordua aldean eskatu beharko dute talde handiek. Hala ere, hitzordua eskatu ezean, momentuan lekua badago ere, aukera izango du bezeroak gure instalazioak erabiltzeko.

Gure jarduera hiru zati nagusitan banatuko dugu eta alor bakoitzean hainbat aukera ezberdin eskeinituko ditugu.

-Lehen atala jarraitasun batez kirolak praktikatzera datozeneiz zuzendua egongo da. (Instalazioak erabiltzeko eskaria handiegia den momentuetan hauek izango dute lehentasuna beti, beste ataletako jendearen aurretik). Atal honetako kirolariek hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute, baina bereziki ur bizietako piraguismoa praktikatzeko dutenei zuzendua egongo da. Hauek autonomia izango dute bera beraiek nahi bezala kontrolatu ahal izango dute kanalak, uraren abiadura eta kanaleko harrien disposizioa. Era berean gure instalazioetan beren materialak gordetzeko aukera izango dituzte, baita gure aldagela eta komunak erabiltzeko ere.

-Bigarren atala ur kirolak probatzera eta ondo pasa nahi duen jendearentzat zuzendurikoa da. Talde txikian zein handian etor daitezke eta hemen eskainiko diegu kanalean ibiltzeko behar duten material guztia. Rafting-a, piraguismoa edo hidrospeed-a praktikatu ahal izango dute. Hauen kasuan, eta hasiberrienak diren horientzako bereziki, hainbat monitore egongo dira, azalpenak eman eta dena ondo joan dadila kontrolatzen. Nibelaren eta adinaren arabera ariketa ezberdinak proposatuko dituzte monitoreek, kalanaren abiadura kontrolatuz eta oztopo ezberdinak gaindituz. Ordu erdiko txandak izango dira eta tarifak pertsona kopuruaren arabera aldatuko dira. Hauek, kirolariek bezala, gure aldagelak eta biltzeko izango dute, baita gure komunak, parking-a eta gainontzeko instalakuntzak ere.

-Azken eta hirugarren atalean gurera bazkaltzera datozenak egongo lirateke. Hauek zelaiak, mahai eta aulkiak, iturria eta platerak garbitzeko ahaska, parking-a... izango dute eskuragarri. Doako zerbitzua da hau baina etekina ateratzeko edaria gure tabernan erosi beharko da derrigorrez, eta hori ziurtatzeko debekatua egongo da kanpoko edozein edari sartzeari. (Iturritik nahi bezain beste ur hartzeko aukera izango dute noski). Mahiak jendea etorri ahala joango dira betetzen, baina hauek erreserbatzeko aukera egongo da eta mahai guztiak okupatuko balira hauek izango lukete lehentasuna. Gainera, urtebetetze festak eta horrelakoak antolatzeko zerbitzua eskainiko du tabernak, behar den guztia erosi eta prestatzeaz gu antolatuko garelarik.

Hau izango da gure bezeroei eskainiko diegun guztia.